

Se nos ha agotado la paciencia: CC.OO. apuesta por la presión y la movilización contra el Departamento.

Educación, que se aprovecha de la falta de unidad sindical, sigue sin querer atajar la alta tasa de interinidad, el envejecimiento y la degradación en el sector.

El Departamento ya ha perdido toda su credibilidad y su capacidad negociadora al imponer la OPE de manera unilateral y al no haber sido capaz de acordar el plan plurianual de empleo que el sector demanda para acabar con el alto índice de interinidad (32%). Desatiende, alegando que no cuenta con el respaldo sindical suficiente, nuestra propuesta de plan plurianual de empleo basada en convocatorias anuales de oposiciones hasta el 2011 y en un nuevo compromiso de estabilidad hasta 2011, de forma que se reponga la estabilidad **a todos y todas** los que han sido estables antes de la promulgación de la LOE (3 de mayo de 2006). En su lugar, Educación ha procedido a convocar una OPE escasa y apresurada comunicando por carta a los estables que dejan de serlo y que se integran en la lista de sustitutos; el Departamento pretende tapar la injusticia cometida con los 157 quitando la estabilidad a todos.

Tampoco existen avances sustanciales en materia de reducción de jornada para mayores de 55 de manera universal, podría paliar el progresivo envejecimiento de la plantilla docente. Euskadi es una de las 5 Autonomías en las que no se ha regulado esta cuestión. Asimismo, la cantidad para incentivar la tutoría y los equipos docentes sigue siendo insuficiente (9 millones), no hay avances en la reducción de jornada en infantil y primaria (22 de clase +1 con padres y alumnos) y en secundaria (16 clase +1+1 con padres y alumnos), tampoco en Bachillerato se acepta la ratio de 25 alumnos por aula, ni los 16 orientadores en centros de FP, ni la ampliación de las plantillas de Inspección, ni de IVEI-ISEI, ... Las nuevas figuras educativas necesarias para atender la diversidad de alumnado (n.e.e. , minorías étnicas, e inmigración) están sin consolidar y quedan pendientes de planes y proyectos aún sin cerrar, en los que los sindicatos no estamos siendo consultados (p.e. plan de acogida de alumnado inmigrante, revisión de decreto de derechos y deberes, ...).

Esta nefasta política de gestión de personal merece una respuesta contundente.

La falta de unidad sindical nos debilita ante el Departamento.

Para afrontar esta situación CC.OO. ha realizado múltiples esfuerzos de unidad sindical que han sido rechazados por el resto de los sindicatos. Sólo hemos puesto como condición para el acuerdo **unitario la defensa del mantenimiento del empleo para todos los interinos que han sido estables**, pero, sorprendentemente, el resto de sindicatos no lo han aceptado. En su empeño por mantenerse en sus trece se han negado constantemente a una fórmula de encuentro e insisten en dejar en la cuneta al personal que perdió la estabilidad fruto por acuerdo que sellaron con Educación el año 2004.

A pesar de ello, y por sentido de la responsabilidad como sindicato mayoritario del sector, no vamos a ahondar en la división y en el enfrentamiento entre los trabajadores, por ello y porque consideramos que la gestión de personal de este Departamento es impresentable,

CC.OO. apuesta por la movilización en defensa de un mejor empleo.

Tras los intentos y llamadas reiteradas a actuar con responsabilidad que han sido manifiestamente desatendidas por Educación CC.OO. ha optado por llamar a los trabajadores a la movilización. Y lo hacemos con unos objetivos claros:

- **Por un plan plurianual de empleo: OPEs anuales hasta 2011 y un nuevo compromiso de estabilidad para todos los que han sido estables.**
- **Por la reducción de jornada a los 55 años para todos y todas.**
- **Por un nuevo sistema retributivo incentivador para quien más responsabilidades asume que incluya, con carácter universal, los 60 euros mensuales del complemento específico de especial dedicación docente y establezca la promoción profesional (sistema de grados, Estatuto Docente)**
- **Por la incentivación de las labores directivas y desarrollo negociado del art.139 de la LOE.**
- **Por la participación del profesorado en la revisión del Decreto de derechos y deberes del alumnado y la prevención de la violencia escolar bajo el presupuesto de tolerancia cero en las aulas y en los centros.**

Sabemos que las otras fuerzas sindicales han manifestado también su intención de movilizarse. Sin embargo, desgraciadamente, no coincidimos en los objetivos. Ahora bien, a la vez que impulsamos nuestras propias movilizaciones, y convocamos asambleas informativas de afiliados y en centros, no renunciamos a participar en las que otros convoquen. CC.OO. no va a ahondar en la fractura sindical. Por eso, llama a todo el profesorado a participar en las asambleas informativas convocadas en las sedes del sindicato y en los centros, así como a participar en las movilizaciones que iremos convocando.

Agortu zaigu pazientzia: CCOO Hezkuntza sailaren aurkako presioaren eta mobilizazioen alde dago.

Hezkuntza sailak bere horretan jarraitzen du, irakasleen behin-behinekotasun tasa handiari, zahartzeari eta degradazioari aurre egin nahi izan gabe, batasun sindikalik ez dagoela baliatuta.

Hezkuntza sailak galdua du sinesgarritasuna eta negoziatzeko ahalmena bere kasa ezarri baitu lan-eskaintza publikoa eta ez baita gai izan sektoreak horren tinko aldarrikatutako enpleguaren urte anitzeko plan bat adosteko behin-behinekotasun tasa handiari (%32) aurre egin ahal izateko. Ez du aintzat hartu, sindikatuen babes nahikorik ez duela argudiatuta, gure urte anitzeko planaren proposamena. Honako proposamenak 2011 urtera arte urtero oposizioetarako deialdiak egotea eta 2011ra arteko egonkortasun-konpromiso berria ditu oinarri. Era horretan, egonkortasuna itzuliko zaie LOE (2006ko maiatzaren 3a) promulgatu baino lehen egonkor izandako **guztiei**. Horren ordez Hezkuntza sailak lan-eskaintza publiko ziztrin bat deitu du eta egonkorrei adierazi die, gutun bidez, galdu izan dutela izaera hori eta ordezkoen zerrendan sartuko direla. Hezkuntza sailak estali nahi du 157 egonkorrekin izandako bidegabekeria, guztiei egonkortasuna kenduta.

Era berean, ez dago inolako aurrerapenik 55 urtetik gorakoentzako lanaldiaren murrizketari dagokionez. Neurri honekin eta LOE erretiro aurreratuaren luzapen mugagabearekin irakasleen zahartzea arinduko litzateke. Azken neurri hori adostu genuen Irakaskuntzako Estatutuaren eztabaidan Madrilan MECrekin negoziatzeari uko egiten ez diogunak. Gogoratu nahi dugu Euskadi auzi hau arautu ez den 5 autonomietako bat dela. Halaber, tutoretza eta irakasle-taldeak bultzatzeko zenbatekoak murrizta izaten jarraitzen du (9 milioi), ez dago aurrerapenik lanaldiaren murrizketan haur eta lehen hezkuntzan (22 ikasgelan +1 guraso eta ikasleekin) eta bigarren hezkuntzan (16 ikasgelan +1+1 guraso eta ikasleekin). Era berean, ez da onartzen Batxilergoan 25 ikasleko ratioa ikasgelako, ez 14 orientatzaileak LHko ikastetxeetan, ez Ikuskaritzako zein IVEI-ISEIko langile-kopurua handitzea. Finkatu gabe daude hezkuntza arloan behar diren figura berriak irakasleen dibertsitateari aurre egiteko (hpb, gutxiengo etnikoak eta inmigrazioa) eta oraindik taxutzeko daude zenbait plan eta egitasmo (adibidez, ikasle etorkinak jasotzeko plana, eskubide eta betebeharren dekretua berrikustea...). Plan eta egitasmo horien inguruan ez dute gurekin bat egin ezertarako.

Beraz, erantzun tinkoa behar du Hezkuntza sailak langileen kudeaketan daraman politika penagarri honek.

Batasun sindikalik ez izateak ahuldu egiten gaitu Hezkuntza sailaren aurrean.

Egoera honi aurre egiteko CCOOk milaka ahalegin egin ditu batasun sindikalaren alde, baina gainerako sindikatuek baztertu egin dituzte guztiak. Baldintza bakarra jarri dugu gainerakoekin adostasuna lortzeko ahaleginetan: **egonkorrak izan diren bitarteko guztien enpleguari eusteko defentsa**. Harrigarria bada ere, ez dute onartu. Bere betiko jarrerari eutsi diote, temati, eta uko egin diote bi aldeen arteko jarrerak hurbiltzeko ahaleginei. Era berean, jarraitzen dute bazter uzten egonkortasuna galdu zuten langileak, 2004an Hezkuntza sailarekin erdietsitako akordio alegalaren ondorioz.

Hori hala bada ere, sektore honetako sindikatu nagusia izateak ematen duen ardurari erreparatuta, ez dugu sakonduko langileen arteko zatiketan eta lehian. Horregatik eta uste dugulako negargarria izan dela Hezkuntza sailak langileen kudeaketan izandako jarrera, pazientzia agortu zaigula nahi dugu plazaratu.

CCOOk mobilizazioaren alde egingo du enplegu hobe baten alde.

CCOOk langileak mobilizatzea deitu ditu, ikusita guztiz baztertuak izan direla Hezkuntza sailari arduraz joka zezan helarazi dizkiogun iradokizunak. Mobilizazio horrek helburu garbiak ditu:

- **Enpleguaren urte anitzeko plan baten alde: lan-eskaintza publikoak 2011ra arte eta egonkortasun-konpromiso berri bat egonkor izan diren guztientzat.**
- **Lanaldiaren murrizketa 55 urterekin, guztientzat.**
- **Ordainketa sistema berri baten alde, pizgarria izango dena ardura handiagoak hartzen dituenarentzat. Horren baitan izango dira, guztiok aintzat hartuko duena, hezkuntza-lan bereziko berariazko osagarriko hileroko 60 euroak. Era berean aintzat hartuko du irakasleen lanbide-sustapena.**
- **Zuzendaritza lanak bultzatzearen alde eta LOEren 139. artikulua garapen negoziatua.**
- **Tutoretza bultzatzearen alde.**
- **Irakasleak irakasleen eskubideen eta betebeharren dekretuaren berrikusketan esku hartzearen alde eta eskolako indarkeria prebenitzearen alde, ikasgela eta eskoletan inolako aukerarik eman gabe indarkeria hori ager dadin.**

Badakigu gainerako sindikatuek ere asmoa dutela langileak mobilizatzea deitzeko. Baina, zoritxarrez, ez gatoz bat ez helburuetan, ez bideetan. Hori hala izanik ere, ez dugu baztertuko beste batzuek deitutako mobilizazioetan parte hartzea, nahiz eta aldi berean gure mobilizazioak bultzatu eta batzar informatiboak deitu ikastetxeetan gure plataformaren berri emateko. CCOOk ez du indarririk egingo sindikatuen arteko zatiketa handiagoa izan dadin, bere helburu bakarra baita irakasle guztien lan-baldintzak hobetzea. Horregatik dei egiten die irakasle guztiei ikastetxeetan eta sindikatuaren egoitzan deitutako batzar informatibo guztietan har dezaten parte, baita deituko ditugun mobilizazioetan ere.